

BILTZAR NAGUSIA

ikas

euskal pedagogia zerbitzua

2023ko ekainaren 3an,
10:00etan
Sanoki gela, Itsasu



- 2022ko lanak eta kontuak
- 2023ko egitasmoak eta aurrekontuak

Aurkibidea

2022ko lanen bilduma

1. Dokumentazio zerbitzua	3
1.1. Mediateka	3
1.2. Partaidetzak	4
2. Animazioak eta partaidetzak	6
3. Ikasmaterialgintza	6
3.1. Pedagogia tresna berri hauek argitaratu ditugu euskarri materialetan	6
3.2. Berrargitalpenak	7
3.3. Argitalpen digitalak	7
3.4. Landu ditugun proiektuak	11
4. Hedapena	11
4.1. Euskarri materialen hedapena, Ikasetik zuzenean	11
4.2. Webgunearen bidezko hedapena	12
5. Besterik	12
Bretoi, korsikar eta okzitaniarrak Uztaritzen, Ikas zentroaren 25. urtemuga kari	12
6. Ikaseko langileak	13

2023ko egitasmoak

1. Dokumentazio zerbitzua	14
1.1. Mediateka	14
1.2. Partaidetzak	15
2. Animazioak eta partaidetzak	16
3. Ikasmaterialgintza	17
3.1. 2023ko argitalpen egitaraua	17
3.2. Berrargitalpenak	18
3.3. Landuko ditugun proiektuak	18

2022ko kontuak

2023ko aurrekontuak

2022ko LANEN BILDUMA

1. DOKUMENTAZIO ZERBITZUA

Covid pandemia dela medio ezohiko bi urte iragan ondoan, normaltasunera itzuli da mediateka. Bizkitartean, ageri da irakasleen eta orokorki erabiltzaileen ohiturak aldatu direla. Alabaina, dokumentu fisikoak (liburuak, CDak, DVDak) gutiago baliatzen dira, eta gehiago euskarri digitalak.

1.1. Mediateka

1.1.1. Datu basearen egoera zenbakitan

Notizien kopurua (orotara): 35.550 (2023/01/01)

Ale kopurua (orotara): 28.042 (2023/01/01ean)

Maileguen kopurua: 3 564 ale mailegatu dira 2022an (2019an: 4 209, 2020an: 3 094, 2021ean: 3 386).

Sailez sail:

- Helduen literatura: % 5,5
- Helduen dokumentalak eta bigarren mailako material pedagogikoa: % 6,3
- Haur dokumentalak eta lehen mailako material pedagogikoa: % 18,2
- Gazte literatura: % 4,3
- Haur literatura: % 20,8
- Albumak (6 urtez petik): % 22,6
- Komikiak: % 4,5
- CDak, DVDak, jokoak: % 5,4
- Andanakako liburuak: % 12,2
- Aldizkariak: % 1,4

1.1.2. Funtsaren aberastea eta berritzea

2022an 230 dokumentu erosi ditugu: 171 titulu (15 titulu ale anitzetan *Euskara 4* eta *Euskara 5* pedagogia tresnen osagarri).

Erosi ditugun dokumentuak sailez sail:

- Helduen literatura: % 10,4
- Helduen dokumentalak eta bigarren mailako material pedagogikoa: % 15,7
- Lehen mailarendako dokumentalak: % 8,7
- Gazte literatura: % 5,7
- Haur literatura (albumak barne): % 43,9
- Komikiak: % 14,8
- CDak, DVDak, jokoak: % 0,9

Erosi ditugun dokumentuetarik % 17,4 Iparraldekoak dira (Ipar Euskal Herriko idazleenak edo argitaletxeetakoak).

1.1.3. Xedarratzea (*désherbage*)

2022an ez dugu azoka berezirik egin, beraz ez da xedarratze kanpainarik izan. Haatik, liburu zaharkituak edo andeatuak mediatekako arasetarik kentzen ditugu erregularki.

1.1.4. Mediatekaren erabiltzaileak

Pandemiatik landa, berriz hasi da emendatzen mediatekaren erabiltzaileen kopurua. 2022an: guti gorabehera 730 bisita izan ditugu, iaz baino % 8 gehiago (baina 2019arekin konparatuz: - % 19).

Bereziki irakasleen zerbitzuko dugun mediateka publiko zabalarari ere ezagutarazteko asmoarekin segitzen dugu. Irakaslegaien eta AEKko ikasle taldeen bisitak baditugu erregulari.

AEKko hiru ikaslek bi asteko ikastaldi bat egin dute mediatekan: otsailean, martxoan eta maiatzean.

1.1.5. “Mediateka birtuala” (webgunean) eta dokumentazio saileko zaintza

Ikasen webgunea mediatekaren osagarria eta ataria da. Dokumentu digital, txosten bibliografiko, ustiapen pedagogiko eta behar diren dokumentuez osatzen segitu dugu, irakasleek ongi balia dezaten mediatekaren funtsa.

Webgunearen antolamenduaren hobetzen segitu dugu eduki digitalen hobeki agerian ezartzeko.

1.1.6. Ikasolas

2016ko urritik, *Ikasolas*, Ikasen kazeta digitala, nasaiki zabaltzen diegu irakasleei, hezitzaileei eta burasoei. Bost artikulua badira beti: *Gelako leihotik* (eskolako proiektu interesgarri baten deskribapena), *Erakusleihoa* (liburu baten aurkezpena), *Olerkia eta aho korapiloak* (adin guztiendako olerkiak), *Ikasen berriak* (Ikasek azkenik argitaratu ikas-tresnak euskarri materialetan zein digitalean, mediatekako berriak eta animazioak) eta *Kanpoko berriak* (webgune interesgarriak, aplikazioak edo ekitaldiak). 2022an, hiru zenbaki plazaratu ditugu: martxoan, ekainean eta azaroan. 2022ko azken zenbakia 1.511k hartu dute eta haietarik 637k ireki.

1.1.7. Gazteen euskal literatura

Irakasleen beharren asetzeko xedez, Ikasek gazte literatura saileko erreferentziazko obren zerrenda baten eraikitze-ko asmoa du. Adituen ikuspuntuak eta irakasleen praktikak kontuan hartu nahi ditugu. Literatura obraren kalitateaz gain, bi ezaugarri balioztatzen ditugu: sailartekotasuna (adibidez literaturaren eta historia sailaren arteko lotura), eta irakasleek ekarri ustiapen pedagogikoa.

1.2. Partaidetzak

1.2.1. Euskal Autoritateen lantaldea (EAL)

Euskal Herriko liburutegietako eta dokumentazio zentroetako profesional batzuk elkarretaratu ziren 2017an, eta euskal bibliografiaren katalogatzeko zailtasunak aipatu zituzten. Agerian eman zuten euskal autoritateei dagokien erreferentziazko tresna bateratuaren beharra, erran nahi baita pertsona-autoritate zerrenda bat. Espainiako eta Frantziako Liburutegi Nazionalek berena eginga dute, baina Euskal Herriko Liburutegi Nazionalik ez baita, gisa bereko lanik ez da euskaraz oraino-koan egin, ez osoki, ezta gutienez euskal autoritateei dagokienez ere.

Horrelako tresna baitezpadakoa dela ikusirik, pertsona horiek erabaki dute lantalde baten osatzea, euskal autoritateen lantzeko eta finkatzeko. Xedea hau da: erreferentzia fidagarria, bateratua eta iraunkorra sortzea, profesionalei, liburutegiei, baita nazioarte mailako egitura normatiboei begira (BNE, BNF, VIAF...).

Hamaika erakundetako lankideek osatzen dute taldea: Baionako Mediateka, Bilketa, Baionako Unibertsitatearen liburutegia, Ikas, Baionako Euskal Museoa, ASNABI (Nafarroako Liburuzainen Elkartea), Eusko Jaurilaritzaren Ondare Zuzendaritza, Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka, EIMA, Renoko Jon Bilbao Liburutegia eta HABE Liburutegia.

2022an zortzi aldiz bildu da taldea, telebiltzarrez gehienetan. Onartu autoritateak Wikipedian baliatzeko adostu da eta taldea horretan ari da. AUBiko katalogoan ere izanen dira. Baionako fakultateko liburutegia SUDOC-en EAL autoritate forma onartuen txertatzen hasia da. Taldea gogoetatzen ari da autoritateen eskuragarri emateko tresna propioaren sortzeaz.

1.2.2. Gordailu, Bilketarekin

Bilketa egitasmoa dela medio, Ipar Euskal Herriko liburutegi gehienek beren katalogoa partekatzen dute katalogo orokor batean. Katalogo orokor horren gibelean *Gordailu* izeneko tresna dugu. Liburuzain zenbait erregularki bil-tzen dira Gordailuko arazoen konpontzeko.

1.2.3. Elkartz, EKEk bultzatu duen dinamika

EKEk kultur eragileen beharren ezagutzeko eta diagnostiko partekatu baten egiteko xedearekin abian eman du Elkartz dinamika. Hainbat bilkura antolatu dira kultur arloetan, eta Ikasek literaturari buruzkoan parte hartu du. Hiru bilkura antolatu dira 2022an eta bi xede ateratu dira:

- Kolegioko irakasleei eta ikasleei irakurketa desafio baten proposatzea.
- Literatura arloko profesionalen sarearen indartzea, Sarako Biltzarreko profesionalen eguna baliatuz (helduen li-teratura sailean).

1.2.4. Libreplume elkartearekin

Bouquinvill ttipiaren kariatara Libreplume elkarte animatzaileekin antolatu haur literatura saileko anima-zioak egiten ditugu 2016. urteaz geroztik. 2022an Eider Eibar ilustratzaileari buruzko tailerrak proposatu dizkiegu Uztaritze inguruko eskolei eta 3 eskolak parte hartu dute: Arruntzeko eskola publikoak, Jatsuko eskola publikoak eta Uztaritzeko ikastolak. Horrez gain, Eider Eibarren marrazkien erakusketa antolatu genuen Ikasen egoitzan, otsailaren 28tik martxoaren 4ra.

1.2.5. Formakuntza eta dokumentazio saileko ofiziokoen egunak

- Martxoaren 23an, Bilketarekin: "Berritasunak haur eta gazte literaturan" (Ikaseko dokumentalistak eta Libreplumeko animatzaileak emanik.)
- Apirilaren 11n, Bilketak antolaturik Sarako Biltzarren kariatara: "Ahozko euskal literatura, atzo eta gaur".
- Ekainaren 30ean, Bilketarekin: "Euskal haur eta gazte literaturaren historia" Xabier Etxaniz Etlerekin.
- Urriaren 7an, Ikusi-Mikusi azokaren kariatara: "Euskaraz sortu ala euskaraz itzuli?" mahai ingurua.
- Urriaren 13an, Bilketarekin: liburuzainen bilkura.
- Azaroaren 16an, Seaskako pedagogia egunaren kariatara: "Albumak irakurtzen, hitzez haratago doan irakurketa" Karla Fernandez de Gamboaren mintzaldia.
- Azaroaren 17an, Bilketarekin: euskal funtseko berritasunen aurkezpena (helduen literatura).

1.2.6. Zineskola, EKE eta aholkulari pedagogikoekin

Zineskola dispositiboaren helburu nagusia hau da: euskarazko animazio film interesgarrien proposatzea euskal irakasleei eta haien lehen mailako ikasleei, laguntza pedagogiko egokia eskainiz. Euskal Kultur Erakundeak du egi-tasmo hori eramaten, Gabarra Films, Cinévasion eta Ikas partaideen laguntzarekin. Krisi sanitarioak eragin handia izan du Zineskola egitasmoan. 2022an pentsatu irakasleen lehen formakuntza saioak gibelatu genituen. Hala ere, filmak eta doazkien ustiapen pedagogikoak proposatu dizkiegu eskolei: *Harri Zopa* (1. zikloan), *Ernest & Celestine* (2. zikloan) eta *Lur eta Amets* (3. zikloa). Azken hori bi urtez segidan proposatua izan da, ikasleek horren lantzeko aukera guti ukan zutelako 2021ean. Ustiapen proposamenak Ikasen webgunean dira.

1.2.7. Collège et cinéma (Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Hezkunde Nazionala, EEP, EKE, Ikas, Gastibeltza, Cinévasion, Kanaldude, Gabarra Films)

Departamenduko Kontseiluak bultzaturik, 2022an bigarren aldikotz, euskarazko filmak sartu dituzte *Collège et cinéma* egitasmoan. Ordu arteko dispositiboaren kariatara, ikasleei proposatua zitzairen 3 filmen ikustea jatorrizko bertsioan eta frantses azpitituekin (ez badira berez frantses filmak). 4. film bat sarrarazi da dispositiboan, kolegioetako ika-sleek euskarazko film baten ikusteko parada ukan dezaten. 6. eta 5. mailetako gazteentzat, *Lur eta Amets* izenburuko filma proposatu da, eta 4. eta 3. mailetakoentzat *Nora* izenburuko filma. Film bakoitzari dagokion txosten pedagogi-koa sortu du taldeak. Txostenak Ikasen webgunean dira.

1.2.8. Fonologia, Hezkunde Nazionaleko pedagogia aholkulariekin

Fonologiak garrantzi handia du gaurko ama eskolako programetan. Frantsesezko metodoak ez dira diren bezala erabiltzen ahal. Hezkunde Nazionaleko pedagogia aholkulari batekin, Access argitaletxeko "Vers la phono" metodoaren parte batzuk egokitu ditugu eta zintzilikatu webgunean. Osatu dugu irakasle batek eman materialarekin.

1.2.9. Gure irratiko kronikak

Ikasek segitzen du hilabeteen behin Gure irratiko kronikan parte hartzen. Besteak beste euskarazko liburu batzuen ezagutarazteko eta irakurketaren bultzatzeko parada eskaintzen duen emankizun laburra da.

1.2.10. Besterik

Otsailean, ihauteri garaian aitzineko urtean ezarri genuen maska erakusketa berriz muntatu dugu, Art Plastik - Deneri idekia - elkarteko Briguitt Maryren laguntzaz.

2. ANIMAZIOAK ETA PARTAIDETZAK

- **Adi egon!** Bi saio eman ditu Pantxika Solorzano *Adi egon!* obraren egileak, bata lehen zikloko irakasleentzat eta bestea 2. eta 3. zikloetakoentzat, 2022ko apirilaren 6an, asteazken goizarekin, Ikasen.
- **UztaHitzaren kariatara**, eta Euskaraldiaren garaian, Ikasek mintzaldi bat antolatu zuzen Uztaritzeko Herriko Etxearekin, 2022ko azaroaren 30ean.
Maritxu Goihenetxe ergoterapeuta uztariztarrak mintzaldi hau eman zuen: "Euskararen erabilpena adinekoen zaintza lanetan". Ondotik, Eztitxu Volery-Etxeberri ortofonista estudiantearen lekukotasuna entzun zen.
Lehen mintzairaren eragin handia ondorioztatu zen bi artatzaile gazte horiek eman zituzten azalpen eta lekukotasunetarik. Arrakasta handiko mintzaldi horrek 30 bat lagun bildu zituen.

3. IKASMATERIALGINTZA

3.1. Pedagogia tresna berri hauek argitaratu ditugu euskarri materialetan

Lehen mailako tresnak

- **Euskara 2. zikloan:** *Hartza* informazio dokumentua, Régine Elosegik eta Iker Üthürraltek sortua, batuz eta zubereraz (2. zikloa) 2021eko proiektua
- **Matematika saileko metodo heuristikoa:** **CM1** mailako 23 bideo, Canopé sarekoak, Ikasek euskaratuak
- **Matematika saileko metodo heuristikoa**, Nathan argitaletxetik itzuliak: **CM2** mailako mini-fitxategiak, baliabide fotokopiagarriak, eta Canopéren 10 bideoen euskarazko egokitapena.

- **Kolegioko tresnak**

- **Fisika eta kimika 5.a** eta **Fisika eta kimika 3.a** ikasleen eskuliburuak, Seaskako hiru irakaslek sortuak: Amaia Agirre, Nahikari Otaegi eta Amaia Saez. 2020ko proiektua

- **Haur eta gazte literatura**

- **Hartza iratzarri da!**, Xantal Barneix-Elizagaraik sortua eta ilustratua, batuaz eta zubereraz, eta entzungaiak (1. eta 2. zikloak)
 - **Muga guzien gainetik eleberria**, Xalbat Itzainak idatzia eta Paxkal Bourgoinek ilustratua, ustiapen pedagogikoarekin (4. z.) 2021eko proiektua

3.2. Berrargitalpenak eta edizio berriak

- **Euskara 1** eskuliburua – lehen partea
- **Euskara 1** eskuliburua – bigarren partea
- **Euskara 2** eskuliburua
- **Haramat CE1** eta **Haramat CE2: Neurriak eta geometria** kaierak
- **Haramat CE1** eta **Haramat CE2: trebatzeko fitxategiak**
- **Haramat CM1** eskuliburua
- **Fisika eta kimika 4.a** eskuliburua
- **Nerabeen galdeak** (maitasuna – sexualitatea)
- Haur literatura saileko hiru album: Xantal Barnetxeren **Beldartxo lagunkina**, **Hartxoa baratzean gaindi** eta **Har ttipia baratzen gainti** (zub.)
- **Ikasbide 1 (A1.1)** idazleen fitxategia

Ikasen argitalpenen 2023ko katalogoa egin dugu 2022ko azaroan.

*Ikasek sortzen edo itzultzen duen ikasmaterial guzia **Hezkunde nazionalak** ikuskatzen du pedagogiaren ikuspegitik; **Euskaltzaindiak** hizkuntza saileko gainbegirada egiten du, eta beharrez, gaiko unibertsitario batek edukia aztertzen eta zuzentzen du.*

3.3. Argitalpen digitalak

- **Lehen maila**

Ikasek ekoiztu edo euskaratu baliabideak

- **Adi egon!** - Argibide pedagogikoak eta kartak 🗂️
- **Adi egon!** - Marrazkiak zuri eta beltzez 🖍️
- **Adi egon!** - Entzungaiak 🗣️
- **MMH** bideoak **CM - 10000 eta 999999 arteko zenbakiak** (itzulpena)
- **MMH** bideoak **CM - Luzera unitateak zertako?** (itzulpena)
- **MMH** bideoak **CM - Unitate aldaketak m-tik mm-ra (zenbaki osoak)** (itzulpena)
- **MMH** bideoak **CM - Unitate aldaketak km-tik m-ra (zenbaki osoak)** (itzulpena)
- **MMH** bideoak **CM - Karratuen marraztea** (itzulpena)
- **MMH** bideoak **CM - Bi zifrako zenbakien tartekatzea** (itzulpena)
- **MMH** bideoak **CM - Zatikiak: partekatze xuxenak** (itzulpena)
- **MMH** bideoak **CM - Zatiketen egiteko teknika** (itzulpena)
- **MMH** bideoak **CM - Zuzen paraleloen ezagutzea** (itzulpena)

- MMH bideoak CM - Zuzen paraleloen marraztea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Zuzen perpendikularren ezagutzea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Zuzen perpendikularren marraztea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Hiruki isoszeleen marraztea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Hiruki zuzenen marraztea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Zatikiak idazkera hamartarrean idaztea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Zenbaki hamartarrak zatiki gisa idaztea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Zenbaki hamartarrak 10ez, 100ez eta 1000z biderkatzea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Masen neurtzea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - kg eta g arteko magnitude ordenak (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Iraupenen konparatzea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Tenorearen irakurtzea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Iraupenen estimatzea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Unitate aldaketak m-tik mm-ra (zenbaki hamartarrak) (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Unitate aldaketak km-tik mm-ra (zenbaki hamartarrak) (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Konparatzea, kg-tik mg-ra (zenbaki hamartarrak) (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Zatikiak: partekatze zuzenak (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Zenbaki handiak: Milioiak (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Zenbaki handiak: Miliarrak (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Laukizuzenen marraztea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Zenbaki hamartarren tartekatzea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Zatikien arteko berdintzak (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Zatiketaren teknika 2 (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Parte hamartarreko zifren ezagutzea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Zenbaki hamartarren zuzen graduatuan kokatzea (itzulpena)
- MMH bideoak CM - Zenbaki hamartarren konparatzea: tonak eta gramoak (itzulpena)
- MMH - Metodoaren gidaliburua frantsesez (PDF) 
- Euskara 4 - 3. garaia 
- Euskara 4 - 4. garaia 
- Euskara 4 - 5. garaia 
- Euskara 5 - 1. garaia 
- Euskara 5 - 2. garaia 
- Euskara 5 - 3. garaia hastapena 
- Irakorrika (Euskara 4) - Jimmy Potxolo 
- Irakorrika (Euskara 4) - Elurretako txerri beldurgarria 
- Irakorrika (Euskara 4) - Biribil beldurgarria 
- Irakorrika (Euskara 4) - Eskubeltz taldearen abenturak 
- Irakorrika (Euskara 4) - Mamutxo bere gurasoen bila 
- Irakorrika (Euskara 4) - Onin eta basoko misterioa 
- Irakorrika (Euskara 4) - Superpatataren jatorria 
- Irakorrika (Euskara 4) - Baiona ttipiko piratak 
- Irakorrika (Euskara 4) - Baldar Bikingo eta kanpaldi basatia 
- Basajauna batuaz – ipuina entzungai
- Basajauna zubereraz – ipuina entzungai
- Hartza iratzarri da batuaz – ipuina entzungai
- Hartza iratzarri da zubereraz – ipuina entzungai

Liburu agortuak molde digitalean

- Irakurgaiak 3. zikloa (PDF) 
- Historia 1492-1815 – gidaliburua (PDF) 
- Erdi Aroa eta Nafarroako Erresuma - ikaslearen liburua (PDF) 
- Historia 1492-1815 - ikaslearen liburua (PDF) 
- Matematikak lantzen CP (PDF) 

- *Matematikak lantzen CP* – zubereraz (PDF) 
- *Grafismoa* (PDF) 
- *Altxa Mutilak* - afixa (PDF) 
- *Historiaurreko aztarnak EHko mendietan* – bideoa (MP4) 

Aldizkari digitalizatuak

- 0 - 2001eko maiatza 
- 7. *Pika* - 2002ko urtarrila 
- 8. *Pika* - 2002ko otsaila 
- 9. *Pika* - 2002ko martxoa 
- 16. *Pika* - 2002ko azaroa 
- 17. *Pika* - 2002ko abentua 
- 17. *Pika* - 2002ko abendoa 
- 18 - 2003ko urtarila (Xib) 
- 19 - 2003ko barantaila 
- 21. *Pika* - 2003ko apirila (Xib) 
- 21. *Pika*- Herensugea
- 23. *Pika* - 2003ko ekaina (Xib) 
- 20. *Pika* - 2003ko martxoa 
- 21. *Pika* - 2003ko apirila 
- 22. Korrika 
- 26. *Pika* - 2003ko azaroa 

Euskarazko baliabideak sarean

- Irakasle elebidunen partekatze gunea (padlet)
- Irakaskuntza elebiduna (padlet)
- Euskarazko tresna baliagarriak (padlet)

Zinema eskolan

- *Amama* (Kolegioa zinemara)
- *Handia* (Kolegioa zinemara)
- *Ernest & Celestine* (Zineskola)
- *Harri zopa* eta beste zenbait alderantzizko ipuin (Zineskola)
- *Orkestra Lurtarra* (Zineskola)
- *Barraskiloa eta balea* (Zineskola)

Ustiapen pedagogikoak – baliabide gehigarriak

- *Hiru egun balearen sabelean* - ustiapen pedagogikoa
- *Gereziondoa* - Pilotis saila - ustiapen pedagogikoa
- *Neska haur-jalearen bazkaria* – irudiak
- *Hartz arrea* - ustiapena
- *Hartz arrea* - liburuxka (PDF)
- VERS LA PHONO - euskarazko materiala 
- VERS LA PHONO metodoa frantsesez 
- Fonologia - baliabide gehigarri batzuk 
- Soinuen lantzeko bilduma 

• IKASOLAS

- *Gelako leihotik: Lehen Mundu Gerlako gutunak* (2022ko martxoko zenbakia)
- *Erakusleihoa* - Barruko hotsak (2022ko martxoko zenbakia)

- *Poesia nahas-mahas adin guzientzat... Barruan daramazun txoriak dezan abestu* (2022ko martxoko zenbakia)
- *Ikasen zer berri?* (2022ko martxoko zenbakia)
- *Kanpoko berriak* (2022ko martxoko zenbakia)
- *Gelako leihotik: Xabier Olasoren sekretuetan* (2022ko ekaineko zenbakia)
- *Erakusleihoa - Bisitari bitxia* (2022ko ekaineko zenbakia)
- *Ikasen zer berri?* (2022ko ekaineko zenbakia)
- *Kanpoko berriak* (2022ko ekaineko zenbakia)
- *Poesia nahas-mahas adin guzientzat... Gora bakantzak!* (2022ko ekaineko zenbakia)
- *Erakusleihoa - Tik, bakarrik, tak, ikarak* (2022ko azaroko zenbakia)
- *Gelako leihotik: Haziak idazle, sorkuntza literarioaren garatzeko* (2022ko azaroko zenbakia)
- *Ikasen zer berri?* (2022ko azaroko zenbakia)
- *Kanpoko berriak* (2022ko azaroko zenbakia)
- *Poesia nahas-mahas adin guzientzat... Leihoan euri, udazkenaren mintzo* (2022ko azaroko zenbakia)

Gai kulturalak

- Gau beltza - Mantangorri - Zazpi hamarkada fokupean 
- Gau beltza - Mantangorri - Izuaren ospakizuna
- Gau beltza - Arimen gaua Ikaseko mediatekan (bibliografia)
- Gau beltza: Kantuak
- Gau beltza sarean (webgrafia)
- Eguberri - Mari Domingi eta Olentzero – Margotzeak
- Ihauteriak - Ziripot eta Miel Otxin 
- Ihauteriak - Mantangorri - Euskal ihauteriak 
- Su gainean saltoka 
- Euskal artistak - Balentziaga josten 
- Euskal artistak - Eduardo Txillida, hutsunearen arkitektoa 

Testu ofizialak

- Murgiltze bidezko irakaskuntza proiektuen eramaileentzako gidaorria
- Lurralde hizkuntzen irakaskuntzaren arautzeko zirkularra - 2021
- Euskara saileko gaitasunak kolegio elebidunetan

Azterketak

- B1EA 2018: Gaiak

• Bigarren maila

Ikasmateriala

- *Fisika eta Kimika 5.a* - PDFa eta zuzenketak 
- *Fisika eta Kimika 3.a* - PDFa eta zuzenketak 
- Teknologia 4. zikloan lantzeko ezagutza-fitxak
- *Historia XIX. mendean* – liburuxka eta ustiapena 
- *Historia XIX. mendean - Emazteen egoera* – bideoak 
- *Historia XIX. mendean - Industriaren hastapenak* – irudi bilduma 
- *Historia XIX. mendean - Ekoizteko leku berriak* – irudi bilduma 
- *Historia XIX. mendean - Garraioen iraultza* – irudi bilduma 
- *Historia XIX. mendean - Jendarte berria* – irudi bilduma 
- *Historia XIX. mendean - Ideologia berriak* – irudi bilduma 

- *Historia XIX. mendean - Populazioa eta emigrazioa* – irudi bilduma 
- *Historia XIX. mendean - Kasu azterketa* – irudi bilduma 
- *Gernikako arbolaren karikatura - Foruen galtzea* – Genialy jarduera 
- *Nerabeen galdeak* (PDF)

Ustiapen pedagogikoak

- *Cherch'pas à comprendre* - Booktrailerrak
- *Muga guzien gainetik* - Ustiapen pedagogikoa

• *Ikasen argitalpenen katalogoa*

- 2023ko katalogoa

3.4. Landu ditugun proiektuak

• Lehen maila

- **Euskara 3. zikloan:** *Euskara 4 eta Euskara 5.*
- **Matematika saila:** Nathan argitaletxearen MHM baliabideen itzulpena (segida): CM1 eta CM2 mailetakoko asmakarien kutxak.

• Bigarren maila

- **Euskara eta literatura sailean** (segida): *Ondarea eta ohidurak, Euskal Herria eta Euskara, Natura eta ingurumena, Munduari so egitea, munduak asmatzea, Jendartean bizitzea eta parte hartzea.*
- **Historia sailean:** programa ofiziala Euskal Herriko ondarean oinarrituz (XIX. mendea): ikasleen liburuaren behin-behineko liburua, irakasleen baliabideak eta emazteei buruzko lau bideo.
- **Matematika sailaren abiatzea 2022ko irailean:** hizkuntza baliabideak eta bideoak. Agnès Duranthon ikuskariak antolatu mintegian landu den proiektua da, 2022ko azaroaren 24an eta 25ean.

• Helduen irakaskuntza

- **Ikasbide 5: B1.1** mailari doakion liburukiaren probatzea.
- **Ikasbide 6: B1.2** mailari doakion liburukiaren probatzeko alearen prestatzea (erdia).

4. HEDAPENA

4.1. Euskarri materialen hedapena, Ikasetik zuzenean

Ikasen ikastresnak dohainik zabaltzen dira ikastetxeetan (salbu ikasleen jarduera kaierak), Euskararen Erakunde Publikoaren dirulaguntzari esker.

Bestalde, gure liburuak eskuragai ematen ditugu eskola batzuek antolatzen dituzten liburu azoketan edo gure obrei buruzko ikusgarri batzuen kariatara, liburu denda batzuetan, hezkuntza edo kultura saileko animazio batzuen kariatara, Sarako Idazleen biltzarrean, Sarako Ikusi Mikusi festibalean, Durangoko azokan, eta Ziburuko Baltsan elkartek antolatu euskal liburu eta disko azokan.

Irakasleei gure argitalpenen berri emateko paradarik hoberena pedagogia egunen kariatara gertatzen da. Hiru sareetako pedagogia egunetan ez dugu parte hartu ahal izan 2022an, gomita faltaz. Bestalde, urte guzietan AEK-k eta Baionako fakultateko euskal ikasketetako sailak formatzen dituzten ikasleak eta irakaslegaiak Ikasera heldu dira gure egituraren eta zerbitzuen berri hartzera.

2022an, **16.113 ale banatu genituen (2021ean baino 3 973 ale gutiago), haietarik % 80 baino gehiago zuzenean Ikasetik**. Besteak beste, haur eta gazte literatura saileko ale gutiago banatu dugu (2 025 ale gutiago), azoka berezirik ez baita izan 2022an, eta bi titulu berri baizik ez baikenituen.

Diru sartzeei dagokionez, orotara 58.115 € bildu ditugu, aitzineko urtean baino 571 € gutiago. Ohargarri da *Ikasbide* metodoaren 300 ale gutiago saldu ditugula.

4.2. Webguneen bidezko hedapena

Webgunea

 Bisitak: 129.741 (122.686 ziren 2021ean)
 Telekargatzeak: 166.643 (141.716 ziren 2021ean)

Sare sozialak

 Twitter: 227 jarraitzaile (222 ziren 2021ean)
 Facebook: 305 jarraitzaile (296 ziren 2021ean)
 Instagram: 121 jarraitzaile (2022an ireki kontua)

5. BESTERIK

Bretoi, korsikar eta okzitaniarrak Uztaritzen, Ikas zentroaren 25. urtemuga kari

25. urtemugaren ospatzeko, Ikas zentroak bi eguneko egitaraua apailatua zuen bera bezala ikasmaterialgintzan ari diren bretoi, korsikar eta okzitaniar argitaletxeetako ordezkariekin.

Irailaren 30ean, ostiralarekin, Ikaseko langileek ongietorri beroa egin genien urrundik jin lagunei. Jakin-mina ere baguen: nolako materiala argitaratzen duten, nola ari diren, zer baliabide duten horretarako, erran nahi baita zenbat langile, zer aurrekontu...

Egun osoa elkarrekin iragan genuen, lehenik eskualde bakoitzak bere egoera soziolinguistikoaren berri eman zuela. Denetan egoera kezagarria da, ez da dudarik. Zenbaki guzien artetik, batzuk ohargarri ziren, hala nola Korsikan % 2 baizik ez direla korsikera familian ematen dutenak. Britainian 225.000 hiztun dituzte, haietarik % 80 60 urte baino gehiagokoak, eta % 4z petik dira sail elebidunean eskolatu haur eta gazteak. Akitania Berrian eta Okzitanian, jendetzaren % 7 baizik ez dira gai okzitanieraz mintzatzeko. Ipar Euskal Herrian ere espantu guti euskararen egoera aipatzen delarik, 2016ko inkesta soziolinguistikoaren emaitzen arabera (ez ziren oraino 2021. urte hondarreko inkestaren emaitzak plazaratuak). Datu lazgarri bat: 2021eko ikerketa baten arabera, karrikan entzuten diren mintzairen artean, euskara % 5ez petik da.

Egoera politiko administratiboa arrunt desberdina da eskualde batetik bestera: Korsika uhartea da, eta ahalmen gehiago kausitzen dute frantses estatuaren partetik. Britainia berez eskualde bat da, lau departamenduz osatua. Okzitanieraren eremua, berriz, izigarri zabala da: ikasmateriala okzitanieraz argitaratzen dutenak Akitania Berria eta Okzania eskualdeetako 22 departamenduetako 15.000 ikaslerentzat eta haien irakasleentzat ari dira, hiru dialektotan. Ipar Euskal Herria eremuz eta jendez ttipiena dugu; hemen da hizkuntza gutitua hobekienik zabaldua eskoletan, nahiz ikasleen hiru laurdenek frantsesez baizik ez duten ikasten.

Hizkuntza egoera denetan hitsa dela, desafio bertsuak ditugu euskaldun, bretoi, korsikar eta okzitaniarrek: neke zaie haurrei lehen mailaren hondarrean aise aritzea beren eskualdeko mintzairan; sail elebiduneko anitzek ez dute segitzen kolegioan. Horregatik, baitezpadakoa iduritzen zaigu ikasmaterialaren hizkuntza maila ikasleen maila apalari egokitzea, edukian deus galdu gabe. Denak akort gara hobe dela tokiko materialaren sortzea frantsesetik itzultzea baino: hizkuntza maila egokia erabiltzeaz gain, tokian tokiko adibideak baliatzen ahal dira, herriko ondarea hein batean bederen ezagutarazteko gisan. Gainera, oraingo materiala digitala ere izan behar da, parte bat inprimatua eta parte bat ordenagailuz erabiltzeko prest, ahalaz molde interaktiboan.

Ikas elkarte gisa antolatua den ikasmaterialgintzako argitaletxe bakarra da; besteak Hezkunde Nazionaleko Canopé sarean muntatuak dira. Haatik, denek bat egin dugu elkar laguntzeko xedearekin.

Lau eskualdeetako ordezkariak egoeraren berri eman genuen biharamunean, urriaren lehenean, larunbat goizarekin, Ikasek Eusko Ikaskuntzan antolatu ekitaldi publikoaren kariatara. Hautetsiak gomit ziren eramaten ari diren hizkuntza politikaren azaltzera. Xehetasun franko eman zituzten Euskararen Erakunde Publikoko Antton Kurutxarri lehendakariak, Okzitaniaren den pareko kargudunak eta Britainiakoak (horrek bidez).

Biltzarrean zen UEUko ordezkari batek zioen bezala, Korsika uhartea da, eta beste lurraldeak zatituak. Gogoan begiratu behar den errealitatea... Gaingitu beharreko lege mailako oztopo handia ere aipagai izan da, eta orduan kuraia atxikitze premia.

Ekitaldi horretan zeuden hizkuntza gutituen aldeko lagunek - irakasleak, Hezkunde Nazionaleko ikuskariak eta hezkuntza saileko arduradunak Euskaltzaindiko ordezkaria, etab. - zioten estimagarri dela beste eskualdeetako berri hartzea, eta elkartasuna horrela sustatzen ahal dela.

6. IKASEKO LANGILEAK

Ikasen langileria honela osatua zen 2022an:

- **Aines Dufau** zuzendaria
- **Ixabel Erremundegi** teknika eta administrazio kudeatzailea
- **Fred Larrondo** idazkaria eta hedapen arduraduna
- **Elise Dilet** dokumentalista (Hezkunde Nazionalaren postua)
- **Unai Zubeldia** lehen mailako ikasmaterialgintzako proiektu arduraduna (Hezkunde Nazionalaren postua)
- **Jon Itzaina** bigarren mailako ikasmaterialgintzako proiektu arduraduna
- **Xabier Elizondo** maketista
- **Irene Noriega** denbora erdiz, euskara 2. mailan lantzeko baliabideen sortzen
- **Maite Urmeneta** denbora erdiz, historia 2. mailan lantzeko baliabideen sortzen
- **Battitt Crépin** denbora erdiz, 2022ko irailetik aitzina, matematika 2. mailako baliabideen sortzen
- **Régine Elozegi** Seaskako pedagogia aholkularia, astean bi egun, euskara 3. zikloan lantzeko baliabideen sortzen

2023ko EGITASMOAK

1. DOKUMENTAZIO ZERBITZUA

1.1. Mediateka

1.1.1. Funtsaren aberastea eta berritzea

Erosketen egiteko, dokumentalistak lau irizpide hauek kontuan hartzen ditu: prentsako berriak eta kritika artikulak, erabiltzaileen beharrak eta galdeak (Ikaseko zuzendariarenak eta lankideenak barne), idazleez eta argitaletxeez dituen ezagutzak, baita Ikasen aurrekontuak ere, bistan da.

Erosketa politika hau da beti:

- Iparraldean argitaratzen diren euskarazko tituluak.
- Haur eta gazte literatura hautatua.
- Haurrentzat argitaratzen diren informazio-dokumentuak (zientziak, historia...).
- Helduen literatura, euskara ikasten ari diren helduek irakur ditzaketen liburuak ere gogoan atxikiz.
- Dokumentu pedagogikoak, eta euskalgintzan edo euskal irakaskuntzan ari diren langileentzat baliagarriak.

1.1.2. Funtsaren baliatzea

Irakasleen dokumentuen erabileraren errazteko xedez, segituko dugu:

- Gaika sortu bibliografiak webgunean ematen.
- Berrien arabera dokumentuak agerian ematen.
- Gomendatuak diren liburuen zerrendatzen, ikasmaila eta adinaren arabera.
- Ustiapen pedagogikoen biltzen edo sortzen, eta webgunean ematen.
- Andanakako liburuen ezaugarrien zehazten, hautuaren errazteko.

Mailegatzeko baldintzak irakaslearen egoerari egokitzen dizkiogu (kopuruak eta epeak).

1.1.3. Xedarratzea (*désherbage*)

Liburu zaharkituak edo andeatuak mediatekako arasetarik kentzen ditugu erregulariki.

1.1.4. Webgunean

Covid pandemiaren etxealdietatik landa, tresna digitalen beharra anitz emendatu da, bereziki irakaskuntzaren lehen mailari dagokionez, orduan lehentasuna ematen diogu eduki digitalari, Ikasek sorturik edo bildurik. Segituko dugu webgunearen antolamendua hobetzen eduki digitalen gehiago agerian ezartzeko xedez.

1.1.5. Sare sozialak

Astean behin bederen Ikasen berri ematen dugu Facebook eta Instagram sare sozialetan, gure argitalpenen eta zerbitzuen gehiago ezagutarazteko xedez.

1.1.6. Ikasolas

Aitzineko urteetan bezala, aurten ere hiru zenbakiren zabaltzeko asmoa dugu. Horretarako, irakasleek eramaten dituzten proiektu interesgarrien berri ukan behar dugu. Hedapen eta irakur tasak goitiarazi nahi ditugu.

1.1.7. Gazteen euskarazko literatura

Irakasleen beharrek manaturik, Ikasek gazte literatura saileko erreferentziazko obren zerrendaren sortzeko asmoa du beti. Adituen ikuspuntuak eta lanak, baita irakasleen praktikak ere kontuan hartu nahi ditugu. Kolegioko eta lizeoko irakasleek baliatzen dituzten liburuen zerrendatzen hasiak gara. Kolegiotik hasiz, eta proba gisa, liburu gomendatuen zerrenda bat egin dugu, xehetasun batzuk ekarriz: programekilako loturak, zein mailatan lantzen ahal den eta literatura obrak ustiapen pedagogikorik baduenetz. Zerrenda hori behin-behinekoa da, eta irakasleen oharren arabera osatuko dugu. Asmo hori euskarazko irakasleei aurkeztua izanen zaie ekainaren 1ean, euskarako ikuskariak antolatuko duen mintegiaren kariatara.

1.2. Partaidetzak

1.2.1. Zineskola, EKE eta Hezkunde Nazionaleko pedagogia aholkulariekin

2023an bi film programatu dira: *Barraskiloa eta balea eta itsasoko beste ipuin batzuk* (1. eta 2. zikloak - PSetik CE1era) eta *Orkestra lurtarra* (2. eta 3. zikloak - CE2tik CM2ra). Pedagogia aholkulariek doazkien ustiapen pedagogikoak sortu dituzte Ikaseko dokumentalistaren laguntzaz. Filmak eta pedagogia saileko dokumentuak irakasleei aurkeztu dizkiegu 2023ko urtarrilaren 25ean, Kanbon. 50 bat irakasle izan dira *Orkestra lurtarra* filmaren bi egilek ere parte hartu duten aurkezpen saio horretan. Ustiapen proposamenak Ikasen webgunean dira. 4200 ikaslek baliatu dute Zineskola programa.

1.2.2. Collège et cinéma (Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Hezkunde Nazionala, EEP, EKE, Ikas, Gastibeltza, Cinévasion, Kanaldude, Gabarra Films)

Departamenduko Kontseiluak bultzaturik, esperimentazio bat sortu zen 2021ean *Collège et cinéma*ren kariatara, egitarauan euskarazko film baten sartzeko xedez, erdarazko hiru urte ondoan. 2023an, 6. eta 5. mailetakoko gazteei, *Handia* filma proposatu zaie eta 4. eta 3. mailetakoei *Amama* filma. Film bakoitzari dagokion txosten pedagogiko bat sortu du taldeak eta Ikasen webgunean eskuragarri ezarri.

Hamabost bat ikastetxetako 2000 bat ikaslek *Collège et cinéma* programa baliatu dute. Animazio osagarri batzuk izan dira: lau topaketa Asier Altuna *Amama* filmaren egilearekin, Altzo herriaren bisita (bi talde) eta topaketa Inigo Aranbururekin, bost "soinu efektu tailer" *Handia* filmaz bi kolegiotako ikasleekin.

1.2.3. Elkartzuz, EKEekin

Euskal Kultur Erakundeak ELKARTUZ izeneko bilkura zikloa abiarazi zuen 2021eko urrian. Euskal kulturaren alorrean ari diren eragileak gomitatu zituen. Helburua hau da: euskal kulturaren zortzi alorretako diagnostiko partekatua egitea Ipar Euskal Herri mailan. Ikaseko dokumentalistak literatura arloko bilkuretan parte hartu zuen. 2022an iragan ziren bilkuretatik bi helburu ondorioztatu dira:

- Literatura arloko profesionalen sarea indartzea, Sarako Idazleen Biltzarreko profesionalen eguna baliatuz (helduen literatura).
- Irakurketa desafioen proposatzea kolegioko irakasleei eta ikasleei.

Bigarren helburuaren gauzatzeko, taldeak irakasleekin hurbiletik lan egiteko xedea du, egitasmo egoki eta erakargarriaren proposatzeko gisan.

1.2.4. Bilketa sarean

Lan partekatua eramaten ari gara beti autoritateen sailean (Baionako Mediateka, Bilketa-Euskal Funtsen Ataria, Uztaritzeko Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua, Baionako Euskal Museoko liburutegia, ASNABI-Nafarroako Liburuzainen Elkartea, Eusko Jaurlaritzaren Ondare Zuzendaritza, EIMA Katalogoa, Renoko Jon Bilbao Liburutegia, Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboa, HABE Liburutegia, Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateko Liburutegia). Euskarazko egileen autoritateen lantzen segituko dugu. Paraleloki, behar bezalako eragina eta oihartzuna

izan dezan, lan horren berri ematen diegu hainbat egiturari eta eragileri. Euskarazko Wikipedia kideekin adostu da onartu ditugun autoritateak sartzea Wikipedian. Taldea gogoetatzen ari da autoritateak eskuragarri emateko tresna propio baten sortzeaz.

1.2.5. Gure irratiko kronikak

Ikasek segitzen du hilabeteen behin Gure Irratiko kronikan parte hartzen. Besteak beste euskarazko liburu batzuen ezagutarazteko eta irakurketaren bultzatzeko parada eskaintzen duen emankizun laburra da.

1.2.6. Euskal Haziak elkartarekin

2016an, Euskal Haziak elkarteak ipuin lehiaketa bat sortu zuen: Haziak idazle. Sare giristinoko eskola, kolegio eta lizeo elebidunetako ikasleek parte har dezakete lehiaketa horretan. 2023ko lehiaketaren epaimahaian parte hartuko du Ikaseko dokumentalistak.

1.2.7. Uztaritzeko herrian

Uztaritzeko herriak UztaHitza antolatzen baldin badu 2023an, Ikas entseatuko da animazio baten proposatzera.

1.2.8. Besterik

2023ko otsailean, ihauteri garaia markatu dugu argazki erakusketa bat eskainiz Ikasen egoitzan. Horrez gain, Briguitt Maryk ihauteriez apailatu artikulu bat euskaratu eta linean ezarri dugu.

2. ANIMAZIOAK ETA PARTAIDETZAK

- **Euskara 2. zikloan:** Euskara saileko pedagogia tresnen aurkezpena.

Unai Zubeldiak eta Regine Elosegik euskarriak aurkeztuko dituzte, fokua *Atxikarauan* emanez. A2 mailako hizkuntza helburuen bilduma dela zehazturik, tresna horren erabiltzeko molde zenbait aurkeztuko eta bi-ziaraziko zaizkie irakasleei, metodoan diren testuak eta antzerkitxoak oinarri gisa hartuz, eta gidaliburuetan azalduak diren jarduerak plantan emanez. Jarduera horietan bermatuz ulermena eta ekoizpena nola lant daitezkeen ere erakutsiko da. Animazio hori alde batetik Seaskan antolatuko da, eta bestetik sail elebidunean. Eskola sartzetik landa egin daiteke, sare bakoitzak bere formakuntza programan ezarriko duelakoan.

- **Euskara eta literatura kolegioan:** ekainaren 1ean, Donibane-Lohizuneko Ramiro Arrue ikastetxean, Irene Noriegak aurkeztuko ditu bi gairen edukiak molde interaktiboan moldatuak (WordPress programan), Marie Delpech ikuskariak antolatu mintegiaren kariatara.

- **Historia kolegioan:** ekainaren 6an, Donibane-Lohizuneko Ramiro Arrue ikastetxean, Maite Urmenetak aurkeztuko ditu XIX. mendeaz sortu duen ikasleen liburua eta irakasleen baliabide digitalak, Aurélie Dongeux eta Marie Delpech ikuskariak antolatu mintegiaren kariatara.

- **Matematikak kolegioan:** Battitt Crépinek eta Daniel Elduayenek sortzen dituzten baliabideen aurkezpena Agnès Duranthon ikuskariak antolatuko duen mintegiaren kariatara.

- **Canva** Interneteko multimedia baliabidea da. Aise eta dohainik baliatzen ahal da bideo edo diaporama animatuen egiteko, irudiak, bideoak, testua edota soinua ere gehituz. Irakasleak bideo horiek pedagogia euskarri gisa erabil ditzake, nozio baten aurkezteko, ikasgai baten argitzeko edo hizkuntza euskarri gisa erabiltzeko, adibidez. Bigarren ziklotik aitzina, ikasleek berek ere aise erabil lezakete, beren multimedia euskarrien sortzeko (herexa, aurkezpen edo hizkuntza jarduera gisa, adibidez).

3. IKASMATERIALGINTZA

3.1. 2023ko argitalpen egitaraua

Lehen mailako ikas-tresnak

- ◆ MHM CP mailako mini-fitxategiak, baliabide fotokopiagarriak eta 12 bideo, euskara batuaz eta zubereraz
- ◆ MHM CE1 mailako mini-fitxategiak, baliabide fotokopiagarriak eta 10 bideo, euskara batuaz eta zubereraz
- ◆ MHM CE2 mailako mini-fitxategiak, baliabide fotokopiagarriak eta 9 bideo, euskara batuaz eta zubereraz

Kolegioko ikas-tresnak

- ◆ **Euskara eta literatura sailean:** zazpi nozioetako gaien edukiak molde interaktiboan moldatuak (WordPress programan).
- ◆ **Historia sailean:** Historia XIX. mendea, Maite Urmeneta irakasleak sortu ikasleen liburua eta irakasleen baliabideak.
- ◆ **Matematika saila:** hizkuntza baliabideak eta 9 bideo:

Oinarritzkoak (metodoak)

- Hirukien urraskako eraikuntza.
- Hirukien eraikuntza praktikoa.
- Segmentu erdibitzaileen eraikitze bi metodo.
- Segmentu erdibitzaileen eraikuntza praktikoa.

Nozioak

- Funtzio nozioan sartzeko jardura.
- Funtzio nozioaren sintesia.
- Funtzioei dagokien hiztegia.

Gogoetatzeko egoerak

- Donibane-Lohizune eta Ziburuko badiaren zabalera triangulazioz neurtzea.
- Zokoako eta Arthako digetako harri mokorrez.

Haur eta gazte literatura

- ◆ **Izar saltzailea**, Eneko Bidegain eta Anne Baskaran (3. zikloa) 2022ko proiektua
- ◆ **Intza eta Tomas - Laminaren iturria**, Elise Dilet eta Antton Hariñordokiren **Intza eta Tomas** saileko 2. titulua, Laure Gomezek ilustraturik (3. eta 4. zikloak) 2022ko proiektua
- ◆ Ixabel Etxeberria eta Garbiñe Ubederen bi album: *Urtaroak* eta *Bi etxe, maitasun bera*

Helduen irakaskuntza

- ◆ **Ikasbide 5: B1.1** mailari doakion liburukia, gidaliburua eta entzungaiak

3.2. Berrargitalpenak

- ◆ *Aditz kartak*
- ◆ *HaraMat CP* fitxategia
- ◆ *Ikasbide 1*: ikasleen fitxategia
- ◆ *Ikasbide 2*: ikasleen fitxategia

3.3. Landuko ditugun proiektuak

• Lehen maila

- **Euskara 3. zikloan:** *Euskara 4* eta *Euskara 5*.
- **Matematika saila:** Nathan argitaletxearen MHM baliabideen itzulpena (bukaera): CP, CE1, CE2, CM1 eta CM2 mailetakoko asmakarien kutzak.

• Kolegioa

- **Euskara eta literatura sailean** (sailaren bukatzea): zazpi nozioetako baliabideak A2 mailarentzat ere egokitzea, orotara segurtatuz baliabiderik aski izanen dela gai guzietan (A2 mailatik B2 mailara) eta gaitasun guzien lantzeko gisan; ariketa interaktiboen sortzea. Lizeoko baliabideei buruzko proiektuaren bideratzea.
- **Historia sailean:** XX. mendeari buruzko gaiak Euskal Herriko ondarean oinarrituak (hasiera).
- **Matematika sailean:** Errektoretzarekin hitzartu egitaraua.

• Helduen irakaskuntza

- *Ikasbide 6: B1.2* mailari doakion liburukiaren probatzea.

• Haur eta gazte literatura

- *Amestoki goxo*, Antton Kazabon eta Leire Iparragirre
- *Tartaro*, Xantal Barnetxe
- *Hvitserkur eta ni*, Irati Peluaga eta Edurne Urrestarazu

Argitalpen saileko egitasmoak Ikasen argitalpen batzordean finkatzen dira, urtean bi aldiz (ekain hondarrean eta azaro hondarrean). Gorago aipatu egitaraua argitalpen batzordearen erabakien arabera aberastuko da.